



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

TOKIKO AZOKA ETA MERKATUETAKO SALTOKIEN ESLEIPENARI BURUZKO III. TXOSTENA (GIZARTE- ETA INGURUMEN- IRIZPIDEAK)

LEA/AVC 240-PROM-2020

Aurkibidea:

I. EGITATEZKO AURREKARIAK	1
II. AZOKEK SEKTOREARENTZAT DUTEN GARRANTZI EKONOMIKOA.....	2
III. AZOKETAN ETA MERKATUETAN SALTOKIAK ESLEITZEKO PRINTZPIO OROKORRAK	3
IV. GIZARTE- ETA INGURUMEN-IRIZPIDEAK	4
V. ONDORIOA.....	6

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea
Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea
Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea
Ainara Herce San Martín, idazkaria

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean LEK) bilera egin du 2020ko martxoaren 30ean, arestian zehaztu diren kideekin, eta, bertan, tokiko merkatu eta azoketako saltokien esleipenari buruzko txosten hau eman du.

I. EGITATEZKO AURREKARIAK

2. Azken urteotan zalantzan jarri dira toki-administrazioek erabili izan dituzten hautaketa- eta esleipen-irizpideak, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako tokiko azokak direla-eta egiten diren noizbehinkako edo aldizkako merkatuetako saltokietarakoak.

3. Testuinguru horretan, LEKek orain arte bi txosten egin ditu gai hori lehiaren ikuspegitik aztertzeko. Txosten horietan gardentasunaren, inpartzialtasunaren,



diskriminaziorik ezaren eta publizitatearen printzipioak urratu direla ikusi da.¹ Lehen txostena 2018ko maiatzaren 22an egin zen, eta bigarrena 2019ko uztailaren 24an.² Azken txosten horretan xehetasun handiagoz aztertu dira Bilboko udalerrian antolatutako azoka eta merkatuak.

Era berean, Arartekoak zenbait txosten egin,³ eta gomendioak eman ditu udalerrri batzuetako azoka eta merkatuetan parte hartzeko ezarritako baldintzei buruz, hala nola Berango, Bermeo, Gernika-Lumo, Mungia, Ortuella, Zumarraga eta duela gutxi Bilbo.

4. Tokiko merkatu eta azoken sustapenean eta antolaketan diharduten agintariak gogoeta egiteko unea da hau; egin-eginean ere, ordenantzak aldatu behar dira, edo berriak egin, zerikusia duten sektoreen beharretara egokituak, aldi berean berma daitezkeen norgehiagoka-baldintzak eta gardentasunaren, inpartzialtasunaren, diskriminaziorik ezaren eta publizitatearen printzipioak.

Txosten honek, funtsean, gizarte- eta ingurumen-klausulekin zerikusia duten gaiak jorratzen ditu, hausnarketa-prozesu horretan lagungarri izan dadin.

II. AZOKEK SEKTOREARENTZAT DUTEN GARRANTZI EKONOMIKOA

5. Abeltzaintza-, nekazaritza- eta arrantza-azokak ekoizleen eta erosleen arteko topagunea dira, gero eta gehiago bilatzen dute-eta hurbiltasuna eta kalitate gorenak. Gainera, festarako, eskulangintzarako, ospakizunetarako eta jardueretarako lekuak dira. Merkatu eta azoka gehienek xede komuna tokiko produktuen salmenta da; horregatik, eremu jakin bateko gizarte-ekonomia egituratzeko tresnak dira.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak argitaratutako Euskadiko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Azoken 2020ko Katalogoan⁴ 380 azoka biltzen dira guztira, EAEko hiru lurraldeetan egiten direnak. Horrek erakusten du jarduera horrek garrantzi handia duela ekonomian eta landa-, itsasertz- eta artisautza-ingurunearen sustapenean.

6. ELIKA Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioak diagnostiko bat egin du Euskadiko tokiko merkatu eta azoketan dagoen nekazaritzako elikagaien

¹ [TOKIKO AZOKETAKO SALTOKIEN ESLEIPENARI BURUZKO TXOSTENA LEA/AVC 240-PROM-2017](#)

² [TOKIKO AZOKA ETA MERKATUETAKO SALTOKIEN ESLEIPENARI BURUZKO II. TXOSTENA LEA/AVC 240-PROM-2018](#)

³ http://www.ararteko.net/contenedor.jsp?codMeuPN=1&codResi=1&codMenu=494&codMenuSN=14&seccion=busqueda_resoluciones.jsp&language=eu

⁴ <http://www.euskadiferiak.com/>



produktuaren gertuko salmentari buruz. Diagnostiko horretan nabarmentzen denez, nekazaritzako elikagaiak tokiko edo gertuko salmentaren bidez saltzea (bitartekorik gabe kontsumitzaileari zuzenean saltzeko modalitatean nahiz merkaturatze-zirkuitu laburren bidezko salmentan), gaur egun, gorantz doa Euskadin, eta guztiz interesgarria da euskal landa-ingurunearen bideragarritasun ekonomikoa hobetzeko tresna gisa.

Zirkuitu laburretan saltzeko aukera ugarien artean, tokiko merkatuak eta azokak nabarmentzen dira, oso errotuta daudelako, ibilbide luzea dutelako eta tokiko produktuen kontsumitzaileek oso ondo hartzen dituztelako.

Azterlan horretan jasotako ondorioen artean, nabarmentzekoa da elkarrizketatutako profesionalen ehuneko handi batek, % 49,60, ustiapenaren diru-sarrera nagusizat dituztela azoketan lortutakoak. Halaber, elkarrizketatutako pertsonen % 60,71k merkatuetan soilik egiten du zuzeneko salmenta, eta ez zirkuitu laburreko beste modalitate batzuetan.⁵

7. Bestalde, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) txosten bat egin berri du, zenbait nekazaritza-sektoretan⁶ ekoizleen erakundeen aintzatespena arautuko duen Errege Dekretuaren proiektuari buruzkoa bera, eta bertan adierazi du nekazaritzako ekoizleen (nekazariak eta abeltzainak) sektorearen ahulezia nagusiak direla gehiegizko zatiketa, eskala eskasa eta negoziazio-boterearekiko desorekak.

III. AZOKETAN ETA MERKATUETAN SALTOKIAK ESLEITZEKO PRINTZIO OROKORRAK

8. Hasiara batean jabari publikoko ondasunen baimenak eta emakidak kontratu-erregulaziotik kanpo badaude ere, administrazio publikoen ondareari⁷ buruzko araudi sektorialak kontratazio-arauetara jotzen du artikuluetan berariaz arautzen ez diren alderdietarako. Beraz, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko 9/2017 Legea (SPKL) ordezko tresnatzat har daiteke, eta bertan oinarritu hautaketa-irizpideen definizioa, norgehiagoka-araubidea errespetatuta, eta inpartzialtasunaren, diskriminaziorik ezaren eta publizitatearen printzipioak bermatuta.

⁵Bost toki-merkatu aukeratu ziren diagnostikoa egiteko: Agurain, Amurrio, Durango, Gernika-Lumo eta Portugalete.

Hauek izan dira azterketarako aukeratutako azoka bereziak: Muskiz, Zalla (Mauken Eguna), Markina-Xemein, Gernika-Lumoko Urriko Azoka Nagusia (urriko azken astelehena) eta Leioa.

⁶ <https://www.cnmc.es/expedientes/ipncnmc01619>

⁷ 9.1 artikulua, 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena



9. Hala, azoketako eta merkatuetako saltokiak esleitzeko irizpideei dagokienez, LEAK aurreko txostenetan adierazi du kontratazio publikoa arautzen duten lehia-printzipioak errespetatu behar direla:

- Deialdiaren oinarriek irizpide argi, erraz, objektibo eta aurreikusteko modukoak ezarri behar dituzte, bakoitzari dagokion puntuazioa adierazita.
- Saltokien aukeraketak publizitatearen, gardentasunaren eta norgehiagokaren printzipioak errespetatu behar ditu, eta ezingo dira ezarri baldintza ez beharrezko, neurritz kanpoko edo diskriminatzaileak.
- Gizarte- eta ingurumen-irizpideak sar daitezke, betiere dagokion azokaren xedearekin lotuta badaude.
- Hautaketa-prozesuak ezin du nazionalitate-, erresidentzia- edo bizileku-arrazoiengatik diskriminatu.

10. Udal-espazio publikoan egiten diren merkatu eta azoketan sartzeko eta horietan parte hartzeko baldintzei buruzko informazio guztia zabaltzea erraztu eta sustatu behar da. Horrela, deialdiaren oinarriak parte-hartzaile guztientzako baldintza-berdintasuna bermatzeko moduan diseinatu behar dira, irizpide argi, erraz, objektibo eta aurreikusteko modukoekin.

Era berean, eskatzaile guztiek jaso behar dute berariazko erantzuna azoketan parte hartzeko eskaeretan, parte-hartzaileek lortutako puntuazioari buruzko informazioarekin, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak azalduta.

IV. GIZARTE- ETA INGURUMEN-IRIZPIDEAK

11. Kontratazio publikoari buruzko azken zuzentarauek, laugarren belaunaldiko zuzentarau baiteritze, berretsi egiten dute kontratazioaren eginkizun estrategikoa, eta indartu egiten dute gizarte-politikak kontratazio publikoaren bidez ezartzea.⁸

Zuzentarau horiek SPKLren bidez ekarri ziren Espainiako ordenamendu juridikora.

12. Hala, SPKLren 28.2 artikulua dioenez, kontsiderazio sozialak, ingurumenekoak edo berrikuntzakoak eskaintzen balorazioan sar daitezke. Artikulu horren arabera:

2. Sektore publikoko erakundeek efizientzia eta erabakitako baldintzak betetzen direla begiratu dute kontratazio publikoko prozesuak gauzatzeko orduan, izapideak ahalik eta lasterren egiten lagunduko dute, kontratazio publikoaren prozeduretan **alderdi positibo gisa**

⁸Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak.

Helburua bikoitza da: batetik, diru publikoa modu eraginkorrean gastatzen dela zaintzea, kalitate-prezio erlazorik onena bermatzeko duten eskurapenen bidez, eta, bestetik, interes orokorreko helburu politikoak lortzea, bereziki berrikuntzaren, ingurumenaren eta gizarteratzearen esparruan.



hartuko dituzte kontsiderazio sozialak, ingurumenekoak eta berrikuntzakoak, eta enpresa txiki eta ertainek parte hartzea eta informazioa kosturik gabe eskuratzea sustatuko dute, lege honetan aurreikusitako eran.

Hau da, kontratuaren lehen helburuari gizarte-, ingurumen- edo berrikuntza-arloko kontsiderazioak gehitu ahal izango zaizkio. Elementu horiek ez dira kontratuaren xedearekiko itsaspen hutsak izango; aitzitik, eskaintzen balorazio kualitatiboaren parte izango dira, betiere kontsiderazio horien pisuak kontratuaren lehen helburua bera aizuntzen edo eraginkortasunik gabe uzten ez badu.

13. Era berean, apirilaren 7ko 3/2016 Legeak, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzekoak, honako hau jasotzen du⁹ 4. artikuluan, kontratazio publikoko klausula sozialei dagokienez:

1.- Administrazio-klausula berezien agirietan sartu ahal izango dira, kontratua gauzatzeko moduari dagokionez, kontratuaren ezaugarriekin bat datozen izaera sozialeko eskakizun xehatuak, hala nola luzaroko langabeei lana emateko betebeharra, kontratistak bere ardurapean izatea gazte eta langabeentzako prestakuntza-jarduerak antolatzea, genero-berdintasuna sustatzeko neurriak edo immigranteak integratzeko neurriak hartzea, kontratua egite aldera pertsona desgaituak kontratatzea legeak ezartzen duen kopuruaren gainetik, eta antzeko beste eskakizun batzuk.

14. Gobernu Kontseiluak berak ere onartu zuen, 2008ko apirilaren 29an, "Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeari buruzko Erabakia".¹⁰

Jarraibidean jasotzen denez, kontratazio-organoek gizarte- eta ingurumen-irizpideak eta, ahal den neurrian, gainerako politika publikoak jasoko dituzte, bereziki, agirietan jasotako **kontratu-xedearen definizioan eta deskribapen teknikoan**.

Esleipen-irizpideei dagokienez, adibidez, ingurumen-irizpideen harira, jarraibide horretan honako hau adierazten da:

Inolaz ere ez dira "ingurumenarekiko errespetuzkoa" edo antzeko adierazpen orokorrak erabiliko. Aldiz, helburu hori **irizpide zehatzetan xehatuko da, kontratuaren xedearekin zerikusia izanda eta zenbatzeko moduan. Lizitatzailerik guztiek irizpidea eta balorazio-modua modu homogeneoan interpretatzeko moduan ezarriko dira horiek**.

15. Zehazki, balorazio sozialeko irizpideak askotarikoak izan daitezke, hala nola gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen enplegua sustatzea;

⁹ <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/04/1601560e.pdf>

¹⁰ 6/2008 Ebazpena, ekainaren 2koa, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzararekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez eranskinean jasotako jarraibidea onartzen baitzen. EHAA 116 zk., 2008ko ekainak 19.



enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea sustatzea; lana eta familia bateragarri egitea; edo gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra sustatzea, besteak beste.

16. Ingurumen-irizpideei dagokienez, honako hauek har daitezke kontuan, besteak beste: emisio kutsatzaileak murriztea, energia-eraginkortasuna eta energia-iturri berriztagarrien erabilera, baliabide naturalak (erregaiak, eta ura) lehengai gisa ahalik eta gutxiena kontsumitzea, hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak ahalik eta gutxien sortzea, berrerabiltzea edo birziklatzea, azken produktuari material birziklatuak gehitzea, edo produktuaren edo zerbitzuaren kalitate-bereizgarriak eta ekologikoak.

17. Hala ere, esleipen-irizpide horiek guztiek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Kontratuaren xedeari lotuta egon behar dute.
- Espezifikoki eta objektiboki kuantifikagarriak izan behar dute.
- Aldez aurretik ezagutarazi behar izan dira.

V. ONDORIOA

18. Gogoeta horiek guztiak tokiko azoketako eta merkatuetako saltokien esleipenaren eremura ekarrita, argi dago berebiziko garrantzia duela merkatu edo azokaren xedea behar bezala definitzea, lortu nahi den helburuari estaldura emango dioten hautaketa-irizpideak ezartzea ahalbidetuko duen diskurtsoaz baliatuta.

19. Beharrezkoa da irizpide sozialak, ingurumenekoak eta, ahal den neurrian, gainerako politika publikoak sartzea; batez ere, azokaren edo merkatuaren xedearen definizio eta deskribapen teknikoan. Hala, funtsezkoa da kasuz kasu aztertzea. Toki-administrazio bakoitzak argi eta zehatz zehaztu beharko du zer helburu lortu nahi duen antolatuko den azoka edo merkatuak, esleipen-irizpideak bat etor daitezen helburu horrekin.